

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN





1. zikloa

ZER IKASTEN DUGU JOLASEKIN?

GAUZA BERA IKASTEN AL DA JOLAS GUZTIEKIN?

- Ze jolas ezagutzen dituzu?
(borobilaren barruan idatzi zerrenda)
- ¿Qué juegos conoces?
(contesta dentro del círculo)



- Zein da gustokoena zuretzako?
(borobilean erantzun)
- ¿Cuál es tu favorito?
(responde en el círculo)

Ikerketa-Investigación

Hautatu duzun jolas hori aztertzeraz goaz...

vamos a analizar el juego que has elegido...

Jolasaren izena

Nombre del juego

-Nork jolasten du? ¿Quién juega?

A-Edonork parte hartu dezake. Cualquiera puede.

B-Gaitasun zehatz bat duenak. Quien tiene cierta habilidad.

-Nork irabazten du? ¿Quién gana?

A-Ez dago irabazlerik. No gana nadie.

B-Batzuk. Algunas personas.

-Nola erlazionatzen gara jolasten dugunean? ¿Cómo nos relacionamos cuando jugamos?

A-Elkarri laguntzen diogu. Nos ayudamos.

B-Oztopoak jartzen diogu elkarri. Nos ponemos trampas.

-Hitz egiten da jolasten den bitartean? ¿Se habla mientras se juega?

A-Askó. Mucho.

B-Gutxi. Poco.




A erantzun kopuru handia izan da? Orduan jolasa kooperatiboa da!! Horrela ez bada... berrikusi beharko ditugu jolasak!!


Badakizu badaudela ezagutzen ez dituzun hamaika jolas?

Marraz ezazu zure burua taldean ikas berria duzun aulkiaren jolasera jolasten, atsegin izan zenuen momentu batean. Zergatik hautatu duzu momentu hori?

Dibujate en el grupo mientras jugais al juego de la silla que acabais de aprender en algún momento en que te sintieras bien. Por que has elegido ese momento?



Zein da osagairik garrantzitsuen jolas hauetan?



HELDUEN TXOKOA

Kaixo lagunok!

Ikasturte berriarekin hezkidetza buletinak itzuli dira! Hementxe gaituzue berriro! 1.buletin honetan jolas jardueren inguruko hausnarketaxoa planteatzen dizuegu.

Jakina da jolas jarduerak haurren garapenean duten garrantzia, giza garapena ahalbidetzen duten hainbat prozesu kognitibo, gorputzarenak, afektuzkoak eta sozialak abian jartzeko beharrezkoak baitira. Hala ere, jolas ugari daudenez ezin dugu ahaztu guztiek ez dituztela abilezia berdinak bultzatzen.

Askotan ikusiko duzue nola neskek eta mutilak jolas desberdinak egiten dituzten; honek abilezia desberdinak garatzera eramaten ditu. Ez da berdina dendatxoetara jolasten edo aterpean hizketan ikasten dena eta zelai erdian futbolean edo mugimenaren osagai argia duen jolas batean ikasten dena.

Gauza biak dira garrantzitsuak eta baloratu behar ditugu; aldi askotan futbola besterik ez dagoela ematen du, beste jolas batzuk (tartean tradizioz neskenak direnak) atzeko plano batean uzten ditugun bitartean.

Gonbidapena luzatzen dizuel eskolako patioan edo auzoko plazan behaketa lana egitera...

Hurrengo buletina arte!

El rincón de las personas adultas

¡Hola amigas y amigos!

Los boletines sobre coeducación han vuelto con el nuevo curso. En este primer boletín os invitamos a reflexionar sobre los juegos.

Los juegos tienen mucha importancia en el desarrollo de las criaturas, son necesarios para poner en marcha procesos cognitivos, físicos, afectivos y sociales. De todas maneras todos los juegos no desarrollan las mismas habilidades.

Es muy común ver como niñas y niños practican distintos tipos de juegos y por separado, esto nos lleva a desarrollar distintas habilidades. No se aprende lo mismo jugando a "comiditas" o charlando en las escaleras que jugando a fútbol en medio del campo o en un juego de claro movimiento.

Ambas son importantes y debemos valorarlas; sin embargo, muchas veces da la sensación de que solo hay fútbol, mientras olvidamos otros juegos, entre ellos los tradicionalmente "de niñas".

Os invito a observar el patio o las plazas de vuestro alrededor...

Hasta el próximo boletín!

— Zer behatu duzue? Zerikusia dauka sexuaren arabera egiten diren jolasak eta neska eta mutilen arteko desberdintasunak? ¿Qué habéis observado? ¿Veis alguna relación entre los juegos que hacen niñas y niños y en las diferencias entre ambos?

Koordinatzailea:



Babeslea:



ARRASATEKO UDALA